

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hasieran 4 taldekideek diru kantitate bat jarri beharko ditugu, eta gainera BBVA bankuari kreditu bat eskatuko diegu hasierako kostu guztiak ordaindu ahal izateko. Gure enpresa handitzen doan eanean eta gure irabaziaz handitzen direnean bankuari utzi digutena bueltatuko diogu ahal dugun azkarren arazoa lehenbailehen kendu ahal izateko.

Taldekide bakoitzak abilezia ezberdin bat du, horregatik bakoitza gauza batez arduratuko da. Paularen aitak higiezin agentzia (inmobiliaria) batean lan egiten duenez, erabaki dugu hari laguntza eskatzea lokala lortzeko. Gure ustetan abantaila handia izango da guretzat, izan ere, guri hobeto etorriko zaigun lokala bilatuko digu, prezio egoki batean.

Epaiketetan gu izango garenez langilea defendatuko dugunak abokatu baten behar dugugu; zorionez, Maialenen ama abokatu lizentzia du eta horrek kostu bat ekiditea eragingo digu, izan ere, dohainik eskainiko digu bere zerbitzua. Gure ustetan epaiketa beharrik ez dugu askotan izango, horregatik behar dugunean laguntza eskaintzeko prest dago.



Ilia, gure taldekidea, espezializatuta dago informatika inguruko arloetan, horregatik erabaki dugu bera arduratuko dela web orria diseinatzeaz eta irekitzeaz. Guztion artean erabakiko dugu zein gauza gehituko ditugun orrialde duin bat eduki ahal izateko; gainera, saiatuko gara guztiok erabiltzeko modukoa izaten, inolako zailtasunik gabe erabili ahal izateko. Sare sozialen erabilera guztiok menperatzen dugu, beraz ez dugu inolako arazorik izango erabiltzeko.

Enpresa aurrera eramateko gaitasun komertzialaren beharra dugu, eskerrak Paulak eta Maialenek negoziatzeko abiltatea duten. Beraien laguntzaz, gure produktua enpresei saldu eta bezeroekin harremanetan jartzeko aukera izango dugu.

Pentsatu dugu gurekin kontratua eduki duten bezeroei inkesta bat pasatzea gure enpresa baloratzeko, bai iruzkin bidez edo bai izarren bidez (1etik 5era). Kritika guztiak onartuko ditugu eta ongi hartuko ditugu. Beharrezkoa iruditzen zaigu guri

buruz pentsatzen dutena jakitea, izan ere, honen bidez gure zerbitzua hobetzeko aukera izango dugu.

